

SATLANTIS MICROSATS, S.L.:

NEW SPACE: Lurraren behaketarako eta ingurumenaren zaintzarako sateliteetarako kamerak



Juan Ignacio Burgaleta Ordoñez

burgaleta@satlantis.com

+34944344780

<https://satlantis.com/>



Jarduera: Kamera optiko berritzaileak diseinatzen/ekoizten dituen teknologia arloko ETE bat da. iSIM produktua (Integrado Standard Imager for Microsatellites) nabarmentzen da, Lurraren behaketarako sateliteen kameren belaunaldi berria; aplikazio desberdin ugari dauzka, esaterako, ingurumenaren zaintza.



Sektorea: Construcción aeronáutica y espacial y su maquinaria, en concreto, cámaras para satélites



Enplegatutako pertsonen kopurua: 51



Lokalizazioa: Parque Científico de la Universidad del País Vasco, 48940 , Leioa, Bizkaia

4. Gaur egun, enpresa hedatzen ari da irudien prozesatuarekin lotutako aplikazioen garapenaren arloan.
5. Satlantisen filosofietako bat da I+G jarduera bete-betean mantentzea, produktuaren barne dibertsifikazioa ahalbidetzeko. 2021ean, guztira 10 kamera fabrikatzen ari dira, eta tresna-kopuru handi horrek prozesuen berrikuntzara eramaten du.
6. Satlantis ebaluazio eta jarraipenerako metodologia eta sistema gidatzen dituen plan estrategiko bat dauka.

Lortutako emaitzak

- Satlantisek Lurraren behaketarako iSIM-170 izeneko teknologia berritzailea garatu du. Nazioarteko Estazio Espazialean instalatuta dago eta handik 65.000 irudi baino gehiago jaso ditu. Kalitate handiko irudi azpi-metrikoak jasotzen dituen munduko lehenengo kamera da (satelite txikietarako).
- iSIM-170 kameraren abantaila nagusiak dira bere pisu txikia (15 kg, 100 kg-tik gorako kameraren aldean), tamaina txikia (593x471x308 mm) eta kostu txikia.
- Euroconsult-en arabera, satellite txikietarako merkatuan dagoen kamerarik onena da, masa/erresoluzio espaziala ratioa kontuan hartuta.
- Satlantisek nazio eta nazioarte mailako sari asko jaso ditu bere lan onagatik, esaterako, Beaz-ek (Bizkaiko Foru Aldundia) berrikuntzaren ibilbidea aintzatesteko ematen duen saria edo Japonia - Espainia enpresa elkarteak emandako berrikuntzaren Keicho saria.
- iSIM-170 kameraren arrakasta dela eta, produktu-lerro gehiago (adibidez, iSIM-90 kamera) eta proiektu berriak sortu dira. Gaur egun, Satlantisek 6 misioi dauzka aurreikusita, eta horien artean jaurtiketa bi hauek: bata, 2021eko abenduan, NASArekin batera, Kennedy zentro espazialek, eta bestea, 2022ko uztailean, SpaceX eta Europea Nanoavionics enprekin batera. Beste misio bat 2023an egingo da, eta GEISAT izeneko satelitea jaurtikiko da negutegi-efektuko gasak monitorizatzeko, zehazki, metano-isuriak.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Ondasun fisikoak.

Aukera arloak:

- 1 - Trantsizio energetiko/klimatikoa

Antonio Llardén (Enagásekon presidentea)

«SATLANTISEkin bat egin dugu proiektu aitzindaria delako; izan ere, sektorearen etorkizuneko premiei aurrea hartzea ahalbidetzen digu, eta gainera, metano-isuriaren detekzioarako teknologiarik onenaren bilaketan, Europako agintaritzaren arautzaileekin batera lan egiteko aukera ematen digu»

Ainara Basurko (Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko diputatua)

«Satlantis oinarri teknologikoko enpresa-proiektua da, hazteko eta enplegua sortzeko ahalmen handia duena. Hasieratik lagundu dugu eta jarraitzen dugu laguntza ematen, proiektu berritzailea delako eta lurraldean ditugun erronka eta trantsizioekin bat egiten duelako»

Innovation Index Score: ★★★★★☆

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★★

Kreatibitatea: ★★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★★

★

Eragina: ★★★★★★

Aintzatespena: ★★★★★★